

**ESOFAGOKO Ph-METRIA /pH-METRIA ESOFÁGICA****Zer da proba hau?**

Urdailean dagoen azidoaren ezaugarriak aztertzeke erabiltzen den teknika da pH-metria; izan ere, azidoaren neurria ez da muga batzuetatik gorakoa izan behar. Azido gehiegi egoteak errefluxu gastroesofagikoak eragindako gaixotasuna eragiten du.

**Zer egin behar dut proba aurretik?**

Baraurik egon beharra dago proba hasi baino 8 ordu lehenagotik.

Zenbait medikamenduk urdaileko azido-jarioa aldarazten dutenez, proba honen emaitzak ere aldarazteko gai dira. Honelakoren bat hartzen baduzu, hartzeari utzi behar diozu, adierazitako epe hauetan:

Antiazidoak  
Erranidina  
Famotidina

Proba baino 2 egun arinago

Omeprazola  
Lansoprazola  
Pantoprazola

Proba baino 7 egun arinago

**Non egingo didate proba hau?**

Proba Txagorritxu Ospitalean egiten da, "Urodinamika eta Manometria" proba funtzionalen gelan, 3. solairuan – B eremuan. Ere mu horretan jesarrita itxaron ahalko duzu, sartzeko deitu arte.

Probaren emaitza eskatu zuen medikuari bidaliko diote.

**Nola egingo didate proba?**

Zunda mehe eta malgu bat sartuko dizute sudurretik, urdailaren hasiera arte helduko dena. Zunda hori eztatitik pasatzea desatsegina izaten da, eta baliteke goragaleak eragitea, laster batean desagertzen badira ere. Ez da beharrezkoa medikamentu edo lasaigarririk ematea, ondo jasateko modukoa delako.

Zunda hori 24 orduz izango duzu jarrita, etxera eroango duzun grabagailu eroangarri bati konektatuta. Denbora-tarte horretan bizitza arrunta egingo duzu (ohikoa jan, lo egin, erre erretzailea izanez gero, etab.); gura baduzu, lan ere egin dezakezu.

Orri bat emango dizute, eta bertan agertzen diren ordutegiak adierazi beharko dituzu; era berean, ez duzu grabatzailea manipulatzea behar. Hurrengo egunean Ospitalera itzuli beharko duzu zunda kentzeko.

**Zer egin behar dut probaren ondoren?**

Zunda eta grabagailua kendu ostean, miaketa amaitutzat joko da, eta eguneroko bizimodua egin ahalko duzu. Ez duzu izango zainketa bereziren beharrik.

**¿En qué consiste la prueba?**

La pH-metría es una técnica para estudiar las características del ácido existente en el estómago, cuya cantidad no debe, sobrepasar unos límites. Este ácido procede del estómago y si se encuentra en exceso produce la enfermedad por reflujo gastroesofágico.

**¿Cómo debo prepararme para la prueba?**

Deberá permanecer en ayunas durante las 8 horas anteriores a la prueba.

Ciertos medicamentos alteran la secreción ácida del estómago y por tanto los resultados de esta prueba. Si toma alguno de los siguientes debe suspenderlo tal como se indica:

Antiácidos  
Ranitidina  
Famotidina

↑ 2 días antes de la prueba

Omeprazol  
Lansoprazol  
Pantoprazol

↑ 7 días antes de la prueba

**¿Dónde me realizarán la prueba?**

En la Sala de Pruebas Funcionales "Urodinámica y Manometría" situada en la 3ª Plata – Área B del Hospital Txagorritxu. Podrá esperar sentado a la entrada de dicha área, donde se le llamará.

El resultado de la prueba se enviará al médico que la solicitó.

**¿Cómo me realizarán la prueba?**

Se le introducirá una sonda delgada y flexible a través de la nariz, hasta el inicio del estómago. El paso de la sonda por la garganta es algo molesto y puede provocarle náuseas que desaparecerán tras unos segundos. No precisa la administración de medicamentos ni sedantes, dada su buena tolerancia.

Tendrá colocada la sonda durante 24 horas, conectada a una grabadora portátil que se llevará a su domicilio. En ese tiempo hará vida totalmente normal (comer lo habitual, dormir, fumar si fuma, etc); si lo desea, podrá ir a trabajar.

Se le dará una hoja donde anotará los horarios que se le indican y evitará manipular la grabadora. Al día siguiente volverá al hospital para que le sea retirada la sonda.

**¿Qué debo hacer después de la prueba?**

Una vez le sea retirada la sonda y la grabadora, habrá finalizado la exploración, pudiendo incorporarse a su actividad. No necesita ningún cuidado especial.